

# MERCABILBAO BURU BELARRI INPLIKATUKO DA ASTE NAGUSIKO TXIKIENEN PROGRAMAZIO GASTRONOMIKOAN

- **Aurtengo berrikuntza, hornidura merkatua Txikigunean egongo dela da, fruta broxeta tailerrak eskainiz Aste Nagusiko asteartean eta ostegunean**
- **Beste urte batez, Mercabilbaok Bilboko Konpartsak elkarteak Makilaren Kofradiarekin batera antolatzen duen "Euskal Txiki Master"-ean lagunduko du, Areatzako Pasealekuan egingo den Lehiaketa Gastronomikoaren barruan.**

**Basaurin, 2018ko abuztuaren 17an.-** Txupinak Bilboko 2018ko Aste Nagusiari hasiera emateko gero eta gutxiago falta den honetan, Mercabilbao azken ukituak ematen ari zaie etxeko txikienak harritzeko tailer espezifikoetarako prestakuntzei.

Aurten, Bilboko Konpartsak elkarteak, Makilaren Kofradiarekin batera, Aste Nagusiko Gastronomia Lehiaketaren barruan antolatzen duen "Euskal Txiki Master" ekimenak X. edizioa betetzen du eta, laguntzeko, berrikuntzak ekarriko ditu, Aitor Elizegi sukaldariak koordinatutako sukaldari laguntzaile taldearen eskutik.

- **Astlehena, abuztuak 20:** bertako produktuetan eta sukaldaritza berriko osagaietan oinarritutako entsalada tailerra, zapore anitzak identifikatzen erakusteko.
- **Asteazkena, abuztuak 22:** fruta *showcooking*-a: fruta mozketa erakusketa zenbait sukaldariren eskutik, fruta entsaladak egitea...
- **Ostirala, abuztuak 25:** bakailao kokotxak pil-pil erara prestatzeko tailerra

Umeentzako Sukaldaritza Eskolak Bilboko jaietako ekitaldi nagusietakoa izan gura du beste urte batez eta, horrez gain kultura gastronomiko herrikoia gorde nahi du etxeko txikien artean. Ehunka ume elkartzen dira urtero Areatzako pasealekuan, ingurune didaktiko, dinamiko eta festakoan, elikadurako eta

sukaldeko profesionalekin batera. "Euskal Txiki Masterra" parte hartu gura duten ume guztientzat dago zabalik.

Berrikuntza gisa, lehen aldiz, Casilda Iturrizar parkean egokituko den Txikigunearen barruan fruta broxeta tailerrak egingo dira. Asteartean eta ostegunean izango dira, 16:30etik 20:00etara, eta hurbiltzen diren ume guztientzat egongo dira zabalik. Horrez gain, Txikigunean gaztelu puzgarria instalatuko da, txikienak kontsumo arduratsuan eta osasungarrian sentibilizatzeko Mercabilbaok aurrera daraman apustuaren barruan.

Mercabilbao arduratuko da Euskal Txiki masterrean eta Txikiguneko tailerretan egingo diren errezetak prestatzeko beharrezkoak diren osagaiak hornitzeaz. Horrez gain, Euskal Txiki masterrean parte hartzen duten umeei amantal bat eta prestatutakoa etxera eraman ahal izateko ontziak emango dizkiete.

Laguntza hori, banaketa zentroak urtean zehar aurrera daraman ohiko prestakuntza jardueraren barruan sartzen da. Horrela, Bizkaiko ikastetxe guztiei zuzendutako arrain eta fruta zentzumen-tailerrak eskaintzen ditu. Amaitu berri den 2017-2018 ikasturtean, 1.500 ikasle baino gehiago igaro dira ikasgela horietatik, eta kopuruak gora egiten du urtetik urtera.